

EUSKAL HERRIKO HAUR KANTU TXAPELKETA HERNANIN

“Kantu txapelketak haurrak kantuan hezitzeko bidea ematen du”

■ Atzo aurkeztu zen finala ■ 120 umek kantatuko dute finalean, baina, 2.250 ibili dira txapelketan ■ Euskal Kantuzale elkarteak antolatzen du, Doberarekin elkarlanean.



Ezkerretik: Aristorena, Arraiza, Etxeberria, Berriozabal eta Etxeberria.

ATZO goizean aurkeztu zuten, Haur Txapelketako finala, Biterin emandako prentsaurrekoan. Aurreko lau edizioetako finalak Donibane Lohitzunen, Iruñean, Miarrizten eta Arrigorriagan jokatu izan dira eta aurten Hernanin.

Eugenio Arraizak, Kantuzale elkartearen lehendakari ordeak, esan zuenez “Hernanin aukeratu dugu herri musikan eta kantuan lan asko egin delako: musika eskola dago, txalaparta festak eta abar antolatzen dira...”

KANTUAN HEZITZEKO
Kantu txapelketa Iparraldean egin zen lehenbizi eta gero zabaldu zen Hegoaldera. Txapelketak euskal kantugintzaaren altxorra gordetzeaz gain, “haurrak kantuan hezitzeko aukera ematen du” Arraizak dioenez. Bestalde, kantua elementu integrazzailea da. Ha-

rrera ona izan du bai betiko familia euskaldunetan eta baita euskaraz ez dakiten gurasoetan ere.

Finala ekainaren 9an jokatu da, kiroldegian, arratsaldeko 16:30etan hasita

2.250 UME DENERA
Finalean 120 ume inguru izango dira. Baina, txapelketak urte osoan izugarritzko ume pila jarri du kantuan. Pablo Joxe Aristorena hernaniarra ari da dena koordinatzen. Berak finala ez ezik, aurreko lana nabarmendu zuen: “Finala iceberg-aren punta da. Aurreko faseetan 2.250 ume ibili dira kantuan. Gainera, eskoletan-etan, oraindik eta ume gehiago atera da

eta dinamika hori oso garrantzitsua da”, zioen Aristorenak.

DOBERAREKIN BATERA
Kantu Txapelketa Nafarroako Euskal Kantuzale elkarteak antolatzen du. Aurtengo, finala, Hernanin denez, Dobera elkartearekin elkarlanean antolatu da.

“HERNANIRENTZAT OHOREA”

Mertxe Etxeberria alkateak Hernanirentzat ohore dela esan du Kantu txapelketako finala bertan izatea. Lanean aritu diren guztiak eskertu ditu. Ramon Berriozabal Jaur-laritzako ordezkariak eta *Kutxako* Ramon Etxeberriak eskerroneko hitzak izan zituzten kantu txapelketarentzat.

Finalean Hernaniko bertakorik ez, baina, hemen ikasten dabilenik izango da: Maider Ansa aranoarra. □

PLENOA GAUR UDALETXEAN

Sagastialdeko etxebizitza proiektuaren konbenioa, gaurko puntu nagusia

Hauteskundeetan Hernanin izandako emaitzak direla-eta, EA-EAJ-k, hau galdetuko du galde-erreguetan: “¿Zer egingo du aurrerantzean EH taldearen Udal Gobernuak hernaniarrok adierazi dugun borondate berriari modurik egokienean erantzuteko?” Plenoa 19:30etan da. □

Pelota txapelketak, Aranon

■ Eskuz eta palaz antolatu dituzte neska eta mutilentzat ■ Izena ematea: ekainaren 6 arte.

ARANON *Santiyo* jaietarako pelota txapelketak antolatu dituzte. Eskuz eta palaz izango dira eta bikoteka. Partiduak larunbat arratsaldetan jokatu dira. Finalak Uztaialak 21ean, festen programaren barruan.

IZEN EMATEA

Izena emateko hainbat lekuetan

daude zerrendak. Aranon bertan, Aralar tabernan, Ereñotzun eta Goizuetan. Izena emateko epea datorren asteazkena, eun eta k 6 da. Parte hartzeko baldintza bakarra, federatua ez izatea. Datu gehiago nahi dituenak 948.514121 telefonora dei dezake eta Xabier edo Maitanetaz galdetu. □

Aralarko Mus Txapelketako finala gaur 22:30etan

■ Arizmendi-Arizmendi/ Goñi- Karrion da finala.

AZKEN hiru urtetako txapel-dunak, Goñi-Karrion, aurten ere finalean dira. Aurten, Arizmendi-Arizmendiren kontra.

MARCEL MAGOA

Finalaren aurretik 3-4 postua

jokatuko dute 21:15etan, Jaber-Pello/Apezetxea-Alzaga-aren kontra.

Partida hau bukatzean Marcel magoak orduerdiko ikuskizuna eskainiko du, finala hasi aurretik. □

Hirugarren munduko Laguntza proiektuei buruzko hitzaldia gaur Biterin

■ Aurten aurrera eramateko Hernanin onartutako Proiektuen edukia azalduko da ■ Biterin 19:00etan.

LAGUNTZAILE IZAN NAHI DUT

Markatu X batez zure aukera 5.000 pta
 25.000 pta
 pta

HERNANIK
kronika

Izena _____ Abizenak _____

N.A.N / N.I.F _____ Helbidea _____

P. kodea _____ Herria _____ Herrialdea _____ Tel. _____

Banku edo aurrezki kutxa _____ Titularra _____

Titularren helbidea _____

Entitateak Sukurtsala Kontua

KRONIKAREN kontura diru-sarrera: EUSKADIKO KUTXA 3035 0025 81 025007767.2
KUTXA 2101 0041 01 001096804.8

BONOA UZTEKO: Kronika, Dobera, Pana, Iruetagoiena, Konde eta Zinko Enean. Nahi izanez gero telefonoz (943 33 08 99), postaz (Larramendi 11) edo E-mailez (kronika@topagunea.com) egin dezakezu.

Bai, ezta?



GALARRETA XXI-XXII
FRONTOIA

Galarreta gaina z/g - HERNANI

Gaur arratsaldeko 16:00etatik aurrera erremonte jaialdia:

- ⇒ 1. partidua LARREA-BARRENTXEA II / URRA-GAZTELU
- ⇒ 2. partidua ZEBERIO II-IRIARTE / MATXIN-ALTUNA I-ETXABE
- ⇒ 3. partidua ELIZALDE-AIZPURU / IÑIGO-A.LEKUNBERRI
- ⇒ 4. partidua SARASUA-MENDIZABAL /IRIBARREN-URRETABIZKAIA II

Oronak ordu laurdeneko lan-uztea egin zuen istripuan hildako langilearengatik

■ ELA, LAB, ESK eta STEE-k deitu zuten lan-uztea ■ Oronan sindikaturik egon ez arren, asanblea egin eta paroa apioatzea erabaki zen



Sindikatuak eta Oronako langileak atzo lantegi aurrean.

ORONAKO langileak ordu laurdeneko lan uztea egin zuten atzo lantegi aurrean. Joan den ostiralean langile batek istripu larria izan zuen 300 kiloko material bat buru gainera erorita. C. N. 42 urteko mar-

tutenera ospitalera eraman zuten, baina, larunbatean bertan hil egin zen istripuan hartutako kolpeek eraginda.

ASTELEHEAN PAROA
Astelenean bertan Oronan 5

minutuko lan-uztea egin zen Oronak berak konbokatuta, istripua izan zen tokian bertan.

ISTRIPUZ HILTZEAN, PAROA

ELA, LAB, ESK eta STEE-k langile bat istripuan hiltzen den bakoitzeko lan-uztea deitzen dute, "Lan istripu gehiagorik ez" lemarekin. Oronako langilearen heriotzagatik ordu erdiko kontzentrazioa konbokatu zuten 12:00etatik 12:30etara, eta 100 bat langile inguru bildu ziren.

Orona, ordea, kooperatiba da eta ez dago sindikaturik. Goizean, enpresak asanblea egin zuen, eta gehiengoz sindikatuen deialdiarekin bat egitea erabaki zen. 12:15etan, Ibarzule eta Lastolako langile eta direktiboak sindikatuen deialdira bildu ziren. □

ESKOLARTEKO KIROLA

Larunbateko Olinpiadak jokatu eta bukatu da aurtengo eskolarteko kirola

■ Kirol Patronatuak urtearen balorazio positiboa egin du.



Umeak lasto pardo altxatzen, larunbateko olinpiadetan.

JOAN den larunbateko olinpiadakekin bukatu da ikasturteko eskolarteko kirola. Probak Latxunbeberriko futbol zelaian jokatu ziren. Alde batean sokatira eta bestean, herri kirolak: gizon proba, ingude altxatzea, lasto pardo altxatzea, lokots biltzea, txingak, zaku lasterketa eta bukaeran krossa. Denera, 200 ume inguru ibili ziren, eguraldi ederrarekin.

AURTEN 5. URTEA
Eskolarteko kirolak Hernanin ere bere bidea egin du. Aurtenean ere 1000 ikasle ibili dira 17 kirol ezberdinetan. Atzean, bi hitzarmen daude: Foru Aldundia eta Udalaren artekoa, bate-tik, eta Kirol Patronatua eta ikastetxeen artekoa, bestetik.

Asfalto lanak Latsunben

GAUR hasi eta ostirala bitartean Latsunben bidea asfaltatzen arituko dira. Obretan egongo den tartea rotondatik Antziolako bidegurutzera bitartekoa da, udaltzaigoak Kronikari jakinarazi dionez. Horrexegatik, Udaltzaigoak, jendeari auzoan ez aparkatzeko eskatu dio. Bestalde, ekainaren 3-4 gauean, Zinkoenena asfaltatuko da.

HELDUEN HEZKUNTZA (EPA)

Graduatua ateratzeko probetan izena emateko azken eguna

■ Proba ekainak 19an izango da.

Ikasturte honetan Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulua ateratzeko Proba ekainaren 19an izango da. Baina, proba egiteko izen emateko azken eguna gaur da. Informazio gehiago, Hernaniko H.H. ikastetxean (Antziola

44) edo Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzan lortu daiteke. Interneten ere aurki daiteke informazioa: <http://www.ejgv.net>> hezkuntza> ikasleak> probalibreak helbidean. Hernaniko H.H.ren telefonoa 943.335318 da. □

Piraguan ibili nahi duenak Urumean aukera debalde

■ Larunbat eta igandean da ■ Izena ematea ostiral arte zabalik, kiroldegian.

PIRAGUAN ibiltzen ikasi nahi duenak datorren hiru aste-buruetan Urumean izango du aukera. Udal Kirol Patronatuak antolatu ditu jardunaldi hauek, eta 10 urtetik gorako edonork hartu dezake parte, baldin eta igeri badaki behintzat.

BI EGUNETAN
Orain izen ematen dutenak asteburu honetan bertan hasiko dira. Gero astez aste ikusiko da nor ibili asteburu bakoitzean. Larunbatetan goiz eta arratsaldez izango dira ordubeteko txandan. Igandetan goizez. □

'Pangea' espedizioari buruzko diapositibak, Astigarragan

■ 20:00etan kultur etxean

Banja Luka, Arizmendin

■ 20:45etan afaria ■ 22:00etan, kontzertua.

Lance Armstrong, 'Hernanin'

■ Euskal Bizikleta korritzera etorri da.



Urrietako helmugatik Donostiara bizikletan, Tourreko txapelduna.

IRRATIAK

(E.M. 99.2) 11:35etan: Jose Luis Aizpuruk antzerkirako gomendia egingo du. 11:50etan: AEKko ordezkariek prentsatzen ari diren Hernaniko Tribial jokoari buruz. 12:35etan: Mikel Lizarraldearekin asteburuko kontzertuei buruz.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
▶ Udaltzaingoa: 943 333288
▶ DYA: 943 464622
▶ Autobusak: 943 556662
▶ Anbulatorioa: 943 557750
▶ Jokalari anonimok 943 331103

☎ FARMAZIAK

▶ Egunez: Correa Antziola 44 ☎ 943 551933
▶ Gaez: Urbistondo Lasarte. San Franzisko 1, B ☎ 943 366567

INMACULADA IKASTETXEKO Haurtzaindegi zerbitzua



Datorren irailean irekiko da
Zuen beharrak betetzeko ordutegia izango dugu
Informazio gehiago jasotzeko,
deitu **943-550233** telefonora